

Euskal Herriko biztanleen irakurketa eta musika ohiturak aztertu ditu berriki **Elkar** fundazioak **Siadeco** ikerketa elkartearekin. Datuak esanguratsuak dira:


*“Euskaldun gehienek ez dute euskal kultura kontsumitzen: ez euskarazko libururik, ez euskarazko musikarik, ezta euskarazko hedabiderik ere.”*

Berria, 2018-4-15

*“Musikan, kontsumo digitala eta doakoa da nagusi 16 eta 25 urte bitarteko gazteengan. Etorkizunak ez du joera aldatzeko zantzurik agertzen: kontsumitu ordaindu gabe.”*

Gara, 2018-4-15

**1.Badakigu, Musikak** pertsonarengan era desberdinetan eragin dezakeela, konparazioa baterako :



1.Irudia: musikaren eragina pertsonengan

**2.Badakigu,** 12-21 urte bitartean, haurtzaro eta nerabezaroan eraikitzen dira gizakion balore, iritzi eta sinesmenak. Nerabeen gizarteratze prozesuan **MUSIKAK garrantzi berezia du. EZ da zozokeria!**

**HAURRAK -GAZTEAK**  
eta **MUSIKA**

16-25 urterekin


% 91k egunero

**2 ordu baino gehiago**

2.irudia: gazteen musika kontsumoa egunero

**3.BADAKIGU** XXI. mendeko komunikazioak SAREA duela **ardatz**. Sarea erreferentea da, komunikazioa da, sarean dagoena bada. **kultura-kontsumo bide berri** honek ahuldu egin ditu aurrez aurreko harreman-sare baliagarri zirenak. Dudarik gabe gure bizimodu, kontsumo eta komunikazio ohiturak nola aldatu diren horretan sartu gabe,

*Cumulus Mediako* bi ikerlarik interneten minutu batean sarean gertatzen denaren infografian erakutsia ikusita, **minutu horretan gertatzen denaz zenbat da euskaraz?** Josu Waliñosek dioen gisa, ARRAS gutxi izaki ere, Euskaldunok ere horretan ari gara: **teknologiari esker, komunikabide bilakatzen, kultur-sortzaile bilakatzen ari gara.** euskaldunok euskal edukiz hornitzen ditugu minutu eta orduak Interneten.



3.irudia: *this is what happens in a Internet minute*

**4.BADAKIGU** gazteek, nerabeeek musika entzuteko gehien erabiltzen duten gailua nagusia **telefono mugikorra** dela (%85,2); bigarrenik, eta aipatu gailutik oso urrun, *ordenagailua* dago (%30,7), *tableta* eta *irratia* paretsu erabiltzen dituzten bitartean (%14 eta %13,9, hurrenez hurren). Honen harira, 2017n Joxe eta Itziar Irigoienek iaz Nafarroako ipar-mendebaldeko *6-8 urteko umeen gaitasun digitala garatzen*<sup>1</sup> ikerketa lanean bildutako datuek, aisialdi digitala aski haurrak direnetik hasten dela argi utzi zuten:

“6-8 urteko umeen gaitasun digitala etxean garatzen hasten da lehenagotik. Umeen %87k eskura dauka bere tableta, erdiak inolako

<sup>1</sup>Egileak: Irigoien I.&J. 2017; *6-8 urteko umeen gaitasun digitala garatzen*  
<https://sites.google.com/view/6-8urteko-garapen-digitala/>

segurtasun neurririk jarri gabe. %70k bakarrik kudeatzen du eta ez dago euskal aplikaziorik arrakastatsuenen artean.” Ikus 4. irudia.



4. irudia: 6-8 urteko umeen gaitasun digitala, ondorio nagusiak

Musika eskuratzeko bideak aztertuta, %84k saretik deskargatu egiten du eta %74k *streaming* edo zuzenean entzuteko ohitura du. gehienetan lagunek aipatua izan delarik.

**5.BADAKIGU** input mediatiko gehienak gaztelaniatik datozela (internet, telebista, publizitatea, irratia, egunkariak, aldizkariak...) Gerenabarrenak<sup>2</sup>, *Eaen 4. DBHko ikasleen euskara erabileran eragiten duten faktoreak* ikerketan adierazi duen bezala.

Musika entzuteko nerabeek erabiltzen dituzten plataformen artean ia erabatekoa da *Youtuber*en nagusitasuna (%91,8). Bigarren tokian, *Spotify*<sup>3</sup> legoke (%53,8). Ondoren, eta bata bestetik oso gertu, *40 Principales* eta **Euskadi Gaztea** leudeke (%34,9 eta %33,8, ordena honetan). Pixka bat beherago *Cadena 100* (%25,9) eta, segidan, eta oso antzeko datuekin, *Google Play Music Premium* (%15,5) eta *Kiss FM* (%15,1). Aipagarria da *EITB Irratia* (%4,2) eta *Euskadi Irratia* (%4) lehen postuetatik oso urrun daudela. Eta, *Radio Euskadi*, are eta beherago (%1,4). *Spotify streaming* bidezko musika-zerbitzuak munduan gehien entzuten diren taldeak zein diren aztertu du. Hain zuzen, gida interaktibo bat argitaratu du, eta munduko hainbat hiritan entzuten den musika zein den zehaztu du bertan.

<sup>2</sup> EAEn 4. DBHko ikasleen euskara erabileran eragiten duten faktoreak  
[https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/18877/TESIS\\_GENERABARRENA\\_URRIOLABEITIA\\_MALTE.pdf?sequence=1](https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/18877/TESIS_GENERABARRENA_URRIOLABEITIA_MALTE.pdf?sequence=1)

<sup>3</sup> 41% de usuarios espera nuevo disco a estar en spotify.  
Music Consumer Insight Report Connecting with Musicek eranan: %75k musika streamingen bidez

Horretarako, 1.000 *playlist* edo erreprodukzio-zerrenda hartu ditu oinarri, eta bertzeak bertze, Iruñean, Bilbon eta Gasteizen arrakasta gehien duten taldeak zein diren eman du ezagutzera. Ikus egindako arakatzean Erkidegoan entzunenetakoak zein diren:

1. Enrique Iglesias
2. Coldplay
3. Drake

Euskaldunen zerrenda badago baita ere:

- *The Sound of Bilbao* zerrendak 100 kantu ditu (6 ordu eta 36 minutu) .
- *The Sound of Vitoria* zerrendak 100 kantu ditu (6 ordu eta 28 minutu)

Erkideagoko zerrendan, Fito & Fitipaldis 9. postuan ageri da, Gatibu 34.a, Ken Zazi 43. a eta Esne Beltza 51.a. Benito Lertxundi, Gozategi, Oskorri eta Sorotan bele ere hor ageri dira. Erreferente tradizionalak ageri dira hortaz. *Karrikirin* Gazteak eta irratia<sup>4</sup> buruzko artikuluan irakurritakoa ekarri nahi dut gurerara:

*“ Oihanez modu ezkutuan, gazteen konpromiso falta salatzen duen. Globalizazioaz hitz egiten du, arazo bat balitz moduan, generikoki. Kanpoan egiten den musika Euskal Herria indarrez hartu duela dirudi eta gaztetxoak ez dira gai horretaz jabetu eta autonomiaz jokatzeko. Euskal musika inposatzen saiatu omen ziren Gazteak eta akats ikaragarria izan omen zen (erabakia hartu aurretik ez konturatzea ere...). Audientziak behera egin zuen eta atzera martxa hartu zuten. Gazteek nazio arteko musika eskatzen dute, zer egin genezake guk? ”*

**6.BADAKIGU** transmisioak memoria duela bizitoki, edozein ezagupenen gainetik gizakiok bizipenak ditugu sustrai eta oinarri gure egunerokotasunean, gure errutinetan, gure ohiko bizitzan. Transmisioak ezin du memoria ukatu, iragana alboratu; baina krisiak onartzeko edota eguneratzeko prest agertu behar du.

**ERREFERENTEak eta EZAGUTZA sustatu behar dira haurtzarotik hasita.**

Bildutako ondarea kontsumitu eta zabaltzea da erronka, denborarik galdu gabe.

ZER egin dezakegu hezkuntza arloan? Globalizazioa eta nortasuna uztartu beharrak dira. Euskaldunen esparrua bere erreferenteekin betetzen ez bada, toki libre uzten da eta erreferente indartsuagoek beteko dute. KONTSUMITZAILE gisa zuzenean egunerokoan kontsumitu dezagun, gelan edozein arlotan, edozein adinetan HHTik hasi eta DBHra. Teknologiarik esker eskolan eta etxean berrikusteko aukera dago SYMBALOO bezalako antolatzaile birtualekin.

**7.BADAKIGU** gailu digitala eta internet duen edonor norberaren gaitasun digitalaren arabera **kontsumitzailea** dela. Gazteak kontsumitzaile sutsuak izanik ere, **ekoizle** joera handia dute horretarako era berriak, eredu berriak erabiltzen dituztelarik. Irudia eta musika egunerokotasunean txertatuak daude. Globalizazioaren aurrean nortasuna sustatzeko *prosumerrak* izan gaitzen,

<sup>4</sup> <http://www.karrikiri.eus/iritzi-artikulu-potentea-gaztea-irratia-eta-euskal-musika/>

*prosumer* euskaldunak! Baliabide berriak erabil ditzagun euskaraz aritzeko.  
Edpuzzle, kahott, ...

## Iturriak:

- *Euskal kultur erakundea*; <https://www.eke.eus/eu/kultura>
- Fernández de Arroyabe, A., 2017 ; GIPUZKOAKO NERABE  
EUSKALDUNAK:IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN KONTSUMOA ETA  
SORKUNTZA.IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN KONTSUMOA
- Goikoetxea, G. 2017  
[https://www.berria.eus/paperekoa/1766/002/001/2018-03-15/euskaldunen\\_erdiek\\_baino\\_gehiagok\\_ez\\_dute\\_euskal\\_kultura\\_kontsumitzen.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1766/002/001/2018-03-15/euskaldunen_erdiek_baino_gehiagok_ez_dute_euskal_kultura_kontsumitzen.htm)
- Irigoien, I.&J. 2017; 6-8 urteko umeen gaitasun digitala garatzen  
<https://sites.google.com/view/6-8urteko-garapen-digitala/>
- Kamio, A. 2017;  
[https://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/2018-03-15/hemeroteca\\_articulos/erdaraz-eta-dohainik-eskerrik-asko](https://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/2018-03-15/hemeroteca_articulos/erdaraz-eta-dohainik-eskerrik-asko)
- Waliño, J. 2017;<https://www.sarean.eus/minutu-bat-euskaraz-interneten/>

## Irudiak:

1. Irudia: musikaren eragina pertsonengan
2. irudia: gazteen musika kontsumoa egunero
3. irudia: *this is what happens in a Internet minute*
4. irudia: 6-8 urteko umeen gaitasun digitala, ondorio nagusiak

